



BEGITHARTE HORIEK :

- Ⓔ *erran nahi da* : Estiapien hastia *edo* argizagi oso.
Ⓕ " Argizagi azken laordena.
Ⓖ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
Ⓓ " Argizagi lehen laordena.
-

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharila* 23^{an}; — HAOSTE, *baranthaila* 9^{an};
— BAZKO, *martcho* 27^{an}; — ERROGAZONIAK, *maiatze* 2^{an},
3^{an} eta 4^{an}; — SALBATORE, *maiatze* 5^{an}; — PHENTEKOSTE,
maiatze 15^{an}; — BESTABERRI, *maiatze* 26^{an}; — ABENTUKO
LEHEN IGANTIA, *azaro* 27^{an}.

LAOR THENPORAK :

Baranthaila 16 ⁿ , 18 ⁿ eta 19 ⁿ .	}	Buruila 21 ⁿ , 23 ⁿ eta 24 ⁿ .
Maiatze 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ⁿ .		Abentu 14 ⁿ , 16 ⁿ eta 17 ⁿ .


EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi itzaltze osoa maiatze 9^{an}, ikhousiren eztena Uskal Herrian. — Argizagi itzaltze osoa, maiatze 24^{an}; pharte ikhousiko die Uskal Herrian goizanko bostak eta laordenetarik aitzina, seiak iganrantchiala drano. — Argizagi itzaltze osoa, azaro 17^{an}; ikhousiko die Uskal Herrian gaiherdiuk aitzina, eta oren bakhoitz-eskaz etara drano.







HANITCH KHASU HOUNI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigarren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Bostgerren arraldia diala hirour ourthe hasirik izan da.



ERRAN ZAHAR



Thu etchatia zelian gora, begithartera derora.

Ourdaia eta ardoa, ourthekoa, adichkidia ourthetakoa.

Hurrunera dihoana ezkontzera, edo da enganatu, edo doa enganatzera.


Hurrun hiritik, hurrun osagarritik.

Ourthiarekila, igaran datiano, khecha ez hadila.

Ourthe ehunez gudukan, eta behin ere ez kolpukan.

Zekhenak hounik cztu, barreiazaliak eztuke.

Amaizunari khechia.



Aberastu nahi zena ourthe bitan, urkha zedin ourtherditan.

Atseguiak atsegin dakharke.

Atchoak zertzaz eros dianian, ezta aragirik arakinian.

Nour bera ezagutzia, da jakitatia.

Berberak jaten dianak bere olloa, berberak errekeita beza bere olhoa.

Besteren eskuz sugia berhotik athera nahi du.

Mariderrek eztu erlerik, eta dago eztiz betherik.

Ehun ourthetan ikhous dirok jaona bilainturik, eta bilaña jaonturik.

Emazurtzari, lurra ere alha.

Eskerrak hiztadan, zeren noure haziendari oundaritzadan.

Esku orotako makhila da.

Estiari izan denari bethiere, houn derorkona haniteh zaio, aphur bada ere.

Eztagidala chimiko nahi ezpaduk zarramiko.





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓕ a. l., 3ⁿ, arastiriko or eta 36^m.
 ● g. b., 11ⁿ, eguerditan.
 Ⓓ l. l., 18ⁿ, goizanko 10^{or} eta 29^m.
 ⊕ e. b., 25ⁿ, eguerditan.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- Ⓕ a. l., 2ⁿ, goizanko 11^{or} eta 36^m.
 ● g. b., 10ⁿ, gaiko oren eta 22^m.
 Ⓓ l. l., 16ⁿ, arratseko 6^{or} eta 41^m.
 ⊕ e. b., 24ⁿ, goizanko 3^{or} eta 45^m.



1	Neskanegun.	ZIRKONZISION
2	Igante.	s. Makari.
3	Astelehen.	s. Jenevieva.
4	Asteharte.	sa Fausta.
5	Astizken.	sa Amelia.
6	Ostegun.	APHARIZIO.
7	Ostirale.	sa Melania.
8	Neskanegun.	s. Luzien.
9	Igante. 1.	s. Julien.
10	Astelehen.	s. Marzien.
11	Asteharte.	s. Teodoso.
12	Astizken.	sa Taziena.
13	Ostegun.	s. Leonze.
14	Ostirale.	s. Hilera.
15	Neskanegun.	s. Phaole, erm.
16	Igante. 2.	s. Marzel
17	Astelehen.	s. Antoni.
18	Asteharte.	J. Phetir. E r. Jartia
19	Astizken.	s. Kanut.
20	Ostegun.	s. Fabien eta Sebast.
21	Ostirale.	sa Añes.
22	Neskanegun.	s. Bizente.
23	Igante.	Setuajesimo.
24	Astelehen.	s. Jimote.
25	Asteharte.	J. Phaoler. kon.
26	Astizken.	s. Polykarpe.
27	Ostegun.	s. Johane Kris
28	Ostirale.	s. Amadeo
29	Neskanegun.	s. Franz. Sal.
30	Igante.	Selsajesimo.
31	Astelehen.	s. Petiri Nol.

1	Asteharte.	s. Iñazio.
2	Astizken.	KHANDERALLU
3	Ostegun.	s. Blasi.
4	Ostirale.	sa Jana, Val.
5	Neskanegun.	sa Agata.
6	Igante.	Kinkajesimo.
7	Astelenen.	s. Romual.
8	Asteharte.	s. Johane Mat.
9	Astizken.	HAOSTE.
10	Ostegun.	sa Eskolaztika.
11	Ostirale.	A B. Lou dako3.
12	Neskanegun.	s. Tita.
13	Igante.	GOROZUM. 1 ^a .
14	Astelehen.	s. Valenti.
15	Asteharte.	s. Faosti
16	Ast. IV. Th. B.	sa Juliena.
17	Ostegun.	sa Hiji.
18	Ost. IV Th. B.	J. K. Leutz eta Itz.
19	Nesk. IV Th B.	s. Konrad.
20	Igante.	Gorozumako, 2 ^a
21	Astelehen.	s. Pepein.
22	Asteharte.	J. Petri. Ant. Jart.
23	Astizken.	s. Petiri Dam.
24	Ostegun.	J. MATTHIAS, ap.
25	Ostirale.	Suario Sa.
26	Neskanegun.	sa Batilda.
27	Igante.	Gorozumako, 3 ^a
28	Astelehen.	s. Rufi.



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☾ a. l., 4ⁿ, goizanko 8^{or} eta min. 1ⁿ
- ☉ g. h., 11ⁿ, eguerdi eta 21^m.
- ☽ l. l., 18ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 46^m.
- ☿ e. h., 25ⁿ, goizanko 8^{or} eterditan.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☾ a. l., 3ⁿ, gaiherdi eta 57^m.
- ☉ g. h., 9ⁿ, arratseko 9^{or} eta 34^m.
- ☽ l. l., 16ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 13^m.
- ☿ e. h., 24ⁿ, arrastiriko or eta 32^m.



1 Asteharte.	s. LEON, <i>Baion.</i>	1 Ostirale.	s. Hugés.
2 Astizken.	s. Zinplize.	2 Neskanegun.	s. Franzés P.
3 Ostegun.	s ^a Kunegonda.	3 Igante. 1.	s. <i>Richart.</i>
4 Ostirale.	<i>J. K. Zaoriak.</i>	4 Astelehen.	s. Ambrosi.
5 Neskanegun.	s. Luperkule.	5 Asteharte.	s. Bizente Ferr.
6 Igante.	<i>Gorozumako, 4^a</i>	6 Astizken.	s. Sisto.
7 Astelehen.	s. Tomas Akin	7 Ostegun.	s. Herman.
8 Asteharte.	s. Johane J.	8 Ostirale.	s. Albert.
9 Astizken.	s ^a Frantzesa.	9 Neskanegun.	s. Acazio.
10 Ostegun.	40 Martirak.	10 Igante. 2.	s. <i>Makari.</i>
11 Ostirale.	<i>J. K. Odol Prez.</i>	11 Astelehen.	s. Leon hand.
12 Neskanegun.	s. Greg. haud.	12 Asteharte.	s. Jules.
13 Igante.	PASIONIA.	13 Astizken.	s ^a Ermenegild.
14 Astelehen.	s ^a Matilda.	14 Ostegun.	s. Justeñ.
15 Asteharte.	s. Zakaria.	15 Ostirale.	s ^a Anasztaz'a.
16 Astizken.	s. Ziriaka.	16 Neskanegun.	s ^a Grazi.
17 Ostegun.	s. Patrik.	17 Igante. 3.	s. <i>Anizet.</i>
18 Ostirale.	J. Gabriel, ark.	18 Astelehen.	s. Electero.
19 Neskanegun.	s. JUSEF.	19 Asteharte.	s. Leon IX.
20 Igante.	ERRAMU.	20 Astizken.	s. Teotimo.
21 Astelehen.	s. Benedit.	21 Ostegun.	s. Arzelmo.
22 Asteharte.	s ^a Kiktruda.	22 Ostirale.	s. Suter ala Kato.
23 Astizken.	s ^a Pelajia.	23 Neskanegun.	s. Jorji.
24 Ostegun.	<i>Osteg. Saintu.</i>	24 Igante. 4.	s. <i>Zerazi.</i>
25 Ostirale.	<i>Ostir. Saintu.</i>	25 Astelehen.	J. MARK. 1 b.
26 Neskanegun.	<i>Neskan. Saintu.</i>	26 Asteharte.	s. Klet & Marz.
27 Igante.	BAZKO.	27 Astizken.	s. Zerazio
28 Astelehen.	s. Justein.	28 Ostegun.	J. Phaole, K.
29 Asteharte.	s. Pastor.	29 Ostirale.	s. Petiri, m.
30 Astizken.	s. Amadeo.	30 Neskanegun.	s ^a Katalina.
31 Ostegun.	s. Benjameñ.		



FRANTZIAKO APHEZKUPIEN GUTHUNA ESKOLETZAZ AIPHU



COURE aorhide hanitch maitiak, igaran ourthian, Frantziako aphezkupiek igorri zeizien letera bat oreak sinaturik; kasu eginerazi nahi zeizien, bi lege berri bazi-rela abiaturik aita-ama familiazkoer khentu nahi zutukienak beren haurren eskolatzeko eta altchatzeko dutien zuzenak. Zien arrankuren phizteko oiuhu horren behar handia jente orez ezaguturik zen.

Egun, houna gitzaitzie oharteraztera, Elizako erakspenen arabera, aita-amen zuzenak eta eginbidiak eskolari buruz noulakoak diren.

Familia da zozietate bat Jinkoak eginik eta gizonak desegin eztezakiana. Jakitant direlako eli-batek, paganoen sinheste nahaziez hanturik, nahi diena erranik ere, familiak bizi behar du gobernamentiaren itzalian, bena gobernamentutik berhez. Aita-amak, zienak dira haurrak, zien ezur eta aragi direnaz geroz; ziek derezie eman khorpitzaren bizia, ziek duzie orano zuzena haier arimako bizitziaren hastapenaren emaiteko. Haurren altchatzeko lanian, gobernamentia izan daiteke zien laguntzale eta ordari, bena ez bera nauzi, zier zuzenak khenturik. Gaizki mintzo dira, dioienak gobernamentia haurren zuzenen begirari dela. Haurrak eztu zuzenik Jinkoaren zuzenen kontre joaiten ahal denik; bortchatu gira enthelegia phiztuz geroz Jinkoaren ezagut

zera goure uthurburu eta urhentburubezala. Eztu berheziki, zuzenik bera aita gaisto izan den jakitant okher baten erakaspenen arabera, hamazortzi ourthiak bethe artino egurukiteko errelijionerik ikhasi gabe; aita-amek behar deie errelijionia erakatsi edo erakatserazi haurzarotik.

Zien sinhestiaren arabera zien haurren altchatzeko zuzena ezagaturik zaizie, ez berbera enthelegu chuchenak emaiten dian lege naturalaz, bena orano Jinkoaren beraren legiaz, Liburu Saintiek erakosten deikien bezala. Haietarik batetan, haitatzen dutugu hitz hoik beste hanitchen artetik : « *Ene semia, begira itzak hire aitaren maniak, eta ezditzala ahatz hire amaren erakaspenak. Begira itzak bethi barna izkiribaturik hire bihotzian.* »

Ber erakaspena emaiten deiku Jondane Phaulek, ezariz aita amen ge niengo familiaren zola eta lehen foundamena bezala : « *Haurrak, egitzie orotan aita-amek manhatiak. Jinkoak hala nahi du.* »

Zien gañ den haurren eraikiteko eginbidia bethatzen duzie zihauriek edo besteren bidez; eta noula hortako, arduran, eskolari hersatzen beitziradie, uduri zaiku, oraiko guduken erdian, zinez manhaturik zaikula zier ohartera ziti zer diren zien zuzenak eta zien eginbidiak eskolari buruz; zeren den eskola familiaren hedadura bat bezala, eskola egiliak ezdu-tianez geröz haurrak altchatzen ahal aita-amen ganik ukhen ordarigoa bati esker baizik.

Aita eta amak, **lehenik**, zien zuzena eta eginbidia dira, zien haurrentako eskola baten haitatzia zouintan altchaturik izanen beitera zien sinhestiak manhatzen dian bezala.

Bigerrenekorik, zien zuzena eta zien eginbidia dira, eskola hari begiaren etchekitzia, eta hantik zien haurren lehen beno lehen khentzia, jakiten duzienian, han, bethikoz galtzeko erriskian liratekiela.

I

Lehen lehenik, etchekitzen gira goratik erraitera, zien zuzena eta eginbidia direla, zien haurrentako eskola baten haitatzia, noun altchaturik beittirateke zien errelijioniaren arabera.

Badira Frantzian, orai, bi eskola suerte : *Eskola libroa edo khiristia eta eskola publikoa edo errelijionerik gabekoa*. Lehenik, erakoutsi behar deiziegu zer diren bata eta bestia, gero erranen deiziegu zer gisaz behar duzien gogoaz argitu zien haitiaren egiteko.

Eskola libro edo khiristia da. nauzi bat diana, haurren altchatzeko behar diren jakitate eta bere kargiari doatzen ororeki, sinhestedun dena eta bere sinhestiaren arabera bizi dena, Nauzi dibinoa bezala, harek, Liburu Saintien erranaren arau, *bester erakasten ziana berak lehenik pratikatzen beitzian*.

Eskola khiristia da : hartako buruzagiak, lehen lehenik erakasten beitu errelijionia : haurren ezkie-tan ezpeitu ezarten errelijionia kolpa liroien liburu-rik ; gisa oroz laguntzen beittutu haurren fedia eta berthutia.

Eskola hori, zien haurrek ediren behar lukie orotan ; gobernamentiak familier hori zor luke, zuzenez, hau bezalako herri batetan noun hanitchez haboroak errelijione katolikoan bizi beittira. Ezi Aita Saintu Léon XIII^{ak} ziroan bezala : « *Deus ezta behar-ragorik noula aita-ama khiristien haurrek, ukhen dezen goizik errelijioniaren jakitatie ; eta, hastape-netik gizonaren mouldatzeko haurrari emanik zaiion erakaspinareki batian erakatsirik izan dakion erreli-jionia.* »

Horra zertako, goure aurrhide hanitch maitiak, egiazko katolikoek bethi ezagutu dien eskola khiris-tiaren beharra.

Zombat sakrifizio estie egin, bai hirietan, bai

herrisketan, ahal zen lekhu orotan, eskola khiristien eraikitako eta hedatzeko, haurrer beste jakin behar direnekin errelijioniaren ere erakasteko? Errelijioniak berak sustatzen zutian eskola haien nausiak eta nausi hourak nour nahi bezaiñ argiturik ziren, nour nahi bezaiñ houn zouiñ nahi bizipidetara haurren helearazteko, etsamenetan ageri zen bezala gobernamentiak berak izentatu etsaminazaliak juje.

Eta gero, orano ukhaturik ezten bouilta borthitzian, egotchi deizkienian, familiek haiñ gogoan zutien eskolak, zer lagungoak ez zaizku heltu, katolikoan ganik, goure eskolen egotch arau arra-erakitako?

Hatik, [gisa horrez lurretik arra-eraiki dutugun eskolak, goure Fraide eta Serora eskola-egite maitiak barreiatuz geroz, eztira aski, ez eta hullanik ere. Emendatu behar guntuzke bethi aitzina. *Separazio-neko legiak* eta lege hastialgarri horren ondorioek gibelerazi gabe, loth ditiala lanari, ahala dien persounak oro. **Eliza baten egitia bezaiñ beharra da eskola khiristi baten egitia.** Ezta eliza beharrik, hutsik egon behar badie, eta, bertan elizak hutsik lirateke, errelijionerik gabeko eskolak heben harat betha balite.

Eskola libro edo khiristiaren khantian, horra eskola publikoa edo errelijionerik gabekoa; badakizie nouizdanik dutian hastapenak.

Diala hogeia eta hamar bat ourthe, dolugarri den herraumentu batek boulkaturik, edo beren chede gaistoa gordez, ezari zien eskoletako legetan, eztela behar eskolan errelijioniaz mintzatu. Hori, berañez, gaizki zen eta hor dira ondorio galgarriak. Ezi, zer da eskolan errelijionerik aiphatu behar eztelako legia, baizik ere esker gaisto, gutieste egitia errelijioniari, populu guzien arabera haurren alchatzeko behar direnetan beharrenari?

Bethidanik, orotan, Aita Saintier gaizki izan zaie errelijionerik gabeko eskola eta kondenatu die.

Pio IX^{ak}, 1854^{eko} azaroaren 1^{an}, Piemonteko erre-souman abiatu zen lege holako bat kondenatu zian. Eta 1864^{ian} uztailaren 14^{ian}, Fribourgeko archi-biskoari izkiribatzen zeion letera batetan, kondenatzen zian eskola goragoetan errelijioniaren aiphurik ez egitia, erraiten zialarik ondotik : « Errelijio-nerik gabeko eskola Eliza katolikoaz hampoko horrek, orano ondorio gaistoagoak ekharriko dutu, hedatzen balinbadie eskola tchipietara ; ezi, eskola hoietan, Eli-zaren eraskapenak, bestiak oro beno lehen dira, zuzenez. Erriskurik handienian dago gazteria, eskoletan haur-ren altchatzia eta errelijionia ezpalinbadoatza alkhar-reaki, esku esku. »

Léon XIII^{ak}, Frantziari mintzo zeilarik, hala hala, goraki kondenatu du eskola errelijionerik gabekoa, azkarki bermatuz bere arrazouak. Ezaguteraztek eskolan zouñen gaiza beharra den errelijionia, erraiten zian : « Eskolaren eta errelijioniaren algarganik berhezta, da, nahi ukheita haurra egon dadin deusere entzun gabe Jinkoaren eretzeko eginbidetan gañen. Adin hortako, ezta galbide segurragorik, ezi, handi-tziarekin, haur harek ez tuke Jinkoatan sinhesterik eta estuke nahi batere errelijionerik. » Hala hala mintzo zen Alamaniako eta Kanadako aphezkupier, erraiten zererarik : « Jinkorik gabeko eskola fedieren, berthutiaren eta zoñietate hounaren galgarri da. »

Aita saintien kondenazione hoi en arabera, mintzatu ziren Frantziako aphezkupiak, ikhousi ondoan zer erriskutan ziren haurrak eskoletan, eta errelijione gabeko eskolek gañia hartu badie Frantzian, elizateke chuchen erraitia, hori agitu dela aphezkupiak mutu egon direlako.

Kondenatu du Elizak Jinko gabeko eskola, ountsa ageri da zeren gatik, nahi bada badiren diroienak ez

zialazeren hola mintza Ez othe dira Jinkorik gabeko eskolaren gañ, Frantzia errekalat eramaiten dutien erhokeriak, familia, jentetazuna eta sor-lekhiari ororek behar gunukian estekamentia galeraztiala artino?

Hatik ezta Frantzian herririk, holako eskolarik eztianik : orotan badira. Hortakotz, aita-amak, zien burier behar duzie baitezpada galthegein eta ihardetsi, eia, kountzentziatz, igorten ahal dutuzienez zien haurrak eskola hoietara, ala ez zidienez bortchatu eskola khiristi den baten haitatzera?

Ihardesten dugu lehenik : **zien eginbide horsia dela, eskola khiristiak diren lekhu orotan zien haurren harat igortia** ; noun ez zaizien behar agitu hortarik zier eko zien haurrer **damu handi** zerbait.

Ihardesten dugu bigerrenik : **Elizak debekatzan diala Jinko gabeko eskoletara haurren igortia, haien fedia eta berthutia han galtzeko erriskian direlakoz**. Hori da eginbide bat ezin gehiago seriousa behinere ahatze behar eztena.

Hatik agitzen ahal da halere, egibinde hori hor oso dagolarik sori beita ezin-bestian horren eztitzia. Ounhesten du Elizak errelijionerik gabeko eskola, arrazou **handi** zerbait diententako ; bena etzu hori onunhesten **bi kondizionetan baizik : lehena, deusek ere eztiala, eskola hartan, haurraren kontzentzia kolpatuko ; bigerrena, aita-amek eta aphezek behar dena eginen diela, eskolatik kampo, haurrer errelijioneko erakaspenen eta urhatsen segurtatzeko**.

Zer indar du eginbide horrek? noura artino doa, bai haurtarzuneko eskoletan, bai goragokoetan? Elizako lehen buruzagiaren erakaspenna da : **huts handia dela horren kontre joaitia eta, aita-amek, behin jakinez geroz eginbide hori, utz baleze bethe gabe, elukiela absoluzionerik ukhen ahal**.

Egunko egunian, ihourk ere ez lezake ukha, hanitch eskolatan, errelijionerik aiphu behar etzelakoetan, errejent elibat mintzo direla haurren fediarren kontre, noula nahi, batere acholik gabe; ala liburiez, ala aho mibiz, egin ahala egiten diela sinhestiaren haurrer galerazteko, aita-amer eman hitza itchouski jaten dielarik.

Hori balinbada eskolan errelijionerik ez aiphatzia, zer zioan arren, errelijionerik gabeko eskolak ounhetserazi nahi zutian ministroak, Frantziako legeegilen aitzinian hitzez hitz, hau, erran zianian : « Errejent batek, bere eginbidia ahaterik, bere eskolan, zouñ nahien errelijioniaren kontreko erakaspentak eman balitza, bardin garratzki eta zalhe gaztigaturik lizatske noula erori balitz haur baten joiteko edo gaizki erabilteko hutsiala. »

Ororen jakina da, egunko egunian, hanitch errejentek eztiela hitzemaite haiñ goraki egin hoiiez, khounturik batere etchekitzen ; aldiz, familien errelijionia errespeta lekhutan, uduri diela eztiela beste chederik, haurrer sinhestiaren galeraztia baizik.

Lan hastiogarri horren ikhousiari, ezagutzen dugu, kountzentziaz, noure kargiak manhatzen deikula zier Ebanjelioko hitzaren erraitia : « *Non licet.* — Etzaizie haizu ! » Ez, etzaizie haizu, eskola baten, zer nahi heiñeko izan dadin, zien haurrentako haitatzia, han ikhastekotan goure errelijione saintuko erakaspent, eginbide, pratika guziez gaizki mintzatzen. Hori eginez, lanik galgarrienian pharteliant zinantekie, eta pharteliantgoa horrek zinez ogendant ezar zintiroie, Elizako sakramentien errezebitzetik ephantchatziala artino.

II

Zien bigerren zuzena eta eginbidia da, eskolari begiaren etchekitzia. Behar duzie jakin zer nauzi diren eskola hetan eta zer erakasten dien. Arranku-

ratu behar zidie zer ezarten dien haurren eskietan edo begien aitzinian; liburu, kaier, imaje, orori kasu egin behar duzie.

Fediaz beste, haurren berthutia ere erriskian izaten ahal da; hortaz ere arrankura ukhen behar duzie; berheziki mothikoak eta neskatchounak nahas-mahas diren eskoletan, ezpeita deus horibeno galgarriagorik haurren berthutiarentako ez eta populu argitu batentako deus ahalkegarriagorik.

Beren eginbidiaren hobeki bethatzeko, aita familiatzko elibatek gogatu die houn lizatekiala alkharren artian batarzun zounbaiten egitia. Holaz, lasterrago jakiten da zer igaraiten den eskola batetan, eta indar gehiago bada, zuzenen baliaerazteko, behar ordian. Nahi gunuke holako batarzun hanitch eginik izan ditian.

Ezta arrazouik erraiteko, hortan badela gerlazko chederik. Ogenik eztien errejentek — badira orano halakoak eta laket zaiku horren ezagutzia — eztie beldurrik ukhen behar. Haboro dena, plazerrekin ikhousi behar dutie familiak, eskolako lanaz ezachol izan orde, pheresta ditian buruzagien laguntzera, haurren gogoaren eta bihotzaren ahalaz hountzeko.

Azkenekoz, goure aurhide hanitch maitiak, nahi zutiegu laguntu, guk ere, zien eginbidia dela dirogun horren bethatzen. Hartakoz, goure aphezukupu kargiari etchekirik den eta legek ez tribunalek hautsten ahal eztien zuzen bat berme, **Kondenatzen** dutugu ororek botz batez, eskoletako liburu elibat, hedatienetarik, haietan ageriago beita, gezurrez beltztu eta gutietserazi nahi lukiela **Eliza** katolikoa, bere erakaspeneekin eta bere istoriarekin.

Liburu haien izenak emaiten dutugu, Letera hounen ondotik; hala ezturen hanitch erakasten dutie arimen damutan. **Ukhatzen** dutie edo ez aski egiatako egia orotako beharrenak, hala noula: Jinkoaren izatia, arima ezpiritu bat dela, hil ondoko

bizitzia bere sari edo gaztigu bethierekoekin, bekhatu orijinala ; eta batak bestia nahi beitu, hortarik heltzen dira naturalesaz goragoko gaizen oren ukhatzera.

Horra zertako debekutzen dugun liburu haien eskoletan erabiltia ; bai eta fededun orori haien irakourtzia, begiratzia edo haurren eskietan uztea, nour nahi izan dadin buruzagia haurrer harerazi nahi lutukiena.

Bada beste libururik ere, agian merechi beilukie ber gisan kondenaturik izatia ; haientako Aphezakupi bakhotchak ikhousiko du zer egin bere diozesan eta zer eta nouiz kondena beharraren arau.

Zien aphezakupiek eman **jujamentu horrek badu Elizako erakaspén baten indarra katoliko ororentako** eta lehen lehenik aita-familiak koentako. Errejentek ere beharko die horrez khountu hartu. Berak lirateke beren burien kondenzale, beren eskoletan, haurrak oro edo haboroak katoliko dutielarik, sar eraz balitze liburu batzu, Aita Sainiak edo Aphezakupiek, berberak fedezko gaizetan zuzenezko nausi eta juje direnek, goraki kondenatu dutienak.

Arren, hullantik kasu eginen duzie zien haurrek zer ikhasten dien eskolan. Eginbide hori bethatzen ehi delakoz ere hersiako baizik ezta. Eskola bat haitatu behar duzienian, agitzen ahal da ez zitien izan aski zien burien jabe ; bena, eskolari kasu egiteko, badutuzie orotan eta bethi behar dutuzien indar eta lagungoak oro.

Zien fediak phizturik etchekiko deizien ernetarzun argitiari esker, borogutzen balinbaduzie, eskolan zien haurrek, erreligioniaz aiphurik gabeko erakaspén bat ukhen orde, edireiten diela, erran aiphatu baten arau, « *moulde bat, khiristi baten semetik arnegat bat eginen diana* » hantik lehen beno lehen eta batere dudan egon gabe khentuko dutuzie zien seme eta alhabak.

Abiaturik den lege berri batek nahiko deizketzie eskiak estekatu, behar bada dembora luze gabe, aita eta amer ; bena gizonen legiak zer nahi traba ezaririk ere, Jinkoaren legiak manhatzen beiteizie ezditzatzien utz zien haurren arimak galtzeko erriskian, obedituko duzie Jinkoaren legiari, orhituz noula ihardetsi zien Apostoliek Elizaren hastapeneko etsaier. Besterik aholkatu nahi leikeziener ihardetsiko duzie ziek ere : « *Behar zaio Jinkoari obeditu gizoner beno lehen.* »

Zien haurren erezeko aita-ama egibidez mintzo gitzaitzielarik, ezkinitzazkegu ahatz gouriak, zeren gu ere zien haurren arimen aita beikira. Hortakoz, **goraki erraiten dugu zer nahi gaitzen egartera ekharririk girela**, zien laguntzeko haurren begiratzan eskolako erriskietarik, fedia haietan oso ethekiz, pare-gabeko hountarzun hora, bizi hountako ala besteko jarraitzen zaitzon ondorio ederrekin.

Joana d'Arc, Aita Saintu hounek altharen gainiala altchatu dianak, soldado aitzindari zelarik, hau edo hora etzaitekiala egin erraiten zeienian, ihardetsten zian : « *Gerlariak gudukatuko dira eta Jinkoak emanen deiku garhaitia.* »

Guduka borthitz batetan sartzera goatza, oren hountan, eskoletan gañen ; eta ikhousiz zer lanak, zer nahigabiak aitzinian khausituko dutugun, uduri du neke datekiala zien haurren altchatzeko dutuzien zuzen sakratien ezaguteraztia eta errespetazeraztia. Bena eztezagun etsi, goure aurhide hanitch maitiak ; gudukari loth gitiala, ororek bat eginez, eskiak eskian, ordre hounian eta beldurrik gabe ; ari gitiala gudukan, *Joana d'Arc* bezala, Jesusen eta Mariaren banderaren itzalian ; Jinkoaren lagungoa etzaiku eskaztuko eta hareki batian etsaia garhaituko dugu.

Garhaitze horrek, berantu gabe eman ditzagula eskola ezinago beharrak diren eli-bat, Frantzia

bezalako populu justiziaz eta libertatez gose den baten araberakoak ; nahi hori, Jinkorik gabeko eskolen ondorio galgarriek, orano barnakiago goure bihotzetan phitzten die, familien, errelijioniaren eta Frantziaren hounetan.

Eta letera hau irakourririk izanen da Frantziako diozesa orotako eliza guzietan urrietako lehen igan-tian.

Houna orai liburu kondenatiak :

CALVET, *Histoire de France.*

GAUTHIER et DESCHAMPS, *Histoire de France.*

GUIOT et MANE, *Histoire de France.*

ROGIE et DESPIQUES, 1° *Histoire de France* ; 2° *Petites lectures sur l'histoire de la civilisation française.*

DEVINAT, *Histoire de France.*

BROSSOLETTE, *Histoire de France.*

AULARD et DEBIDOUR, *Histoire de France.*


AULARD, *Eléments d'instruction civique.*

ALBERT BAYET, *Leçons de Morale.*


JULES PAYOT, 1° *Cours de Morale* ; 2° *La Morale à l'école.*

PRIMAIRE, 1° *Manuel d'éducation morale, civique et sociale* ; 2° *Manuel de lectures classiques.*





POPULIA ERREGÉ?



Elhe ederra hori; bai ere inganagarria. Eta elhe horrek inganaturik etchekei du Frantziako jentia azken hogeï eta hamabost ourthe hoietan. Horren inganioak ere hurruntu zian errege katoliko baten legiaren ukheetetik eta erakharri Errepublika lege-mouldiaren ezartera.

Populiaren erregegoa, gorriek zinez oihustatu eta oihust atzen die, bozka egunetan. Eta, zounbat botz emaile, laborarien ala langilen artian, ilusiturik beitira erregegoa horrez.

Gaizo fede hounezko, bena sinheste simpleko gizonak! Haien erregegoak uduri du phastoaletako aturrena; eta orano phastoaletako aturrek, phastoalet egunetan, kampoz berere, badie erregegoaren itchoura zerbait: errege-kapa, errege-koha, errege-ezpata, erreger emaiten zaien ouhouria. Dudarik gabe bertan igaraiten dira itchoura horik eta phastoalet biharamenian, treateko erregia ari da lur utzultzen, dutialarik errege-arropen orde zaragolla eta chamar bethatchatiak, errege-koharen orde bounet zahar bat oro zilo, errege-ezpataren orde golde-nabarraren igouñak edo phertika.

Botz-emailen erregegoa zuzenez ezik ere egitatez halatsu da; zerbait dira, uduriz, bozka egunian; bena hantik kanpo bethi legar-phakazale, berek nahi elutukien legen egarle, bethi peti-gora so-egile; lehenago erregen edo emperadoren demboran beno orano sordeis.

Botz-emailen erregegoa, kargulantek eta gobernamentiaren laguntzalek, nourat nahi erabilten die. Errepublika gorriak ezari dutu 1910^{eko} budjetian

lau miliart eta zounbait ehun milion legar; erran nahi beita *hirour miliart erregen demboran beno haboro*; erran nahi beita *bi miliart eta erdi emperadoriaren demboran beno haboro*; halerik ere, errejent zounbaitek, beren Frantziako istoria gezurtiekin, erranen die lehenago populia zergen pian leherturik zela, oraiko gobernamentia dela merkena eta holako;... arithmetika ahazten dielarik, harek beitiromiliart bat eta *lau miliart* eztirela ber gaiza; *lau kintale* bizkarrian eztirela izaten ahal *kintale bat* bera beno arhinago eta kharreiatzen ehiago.

Populia errege? Zer gezurra! Errege denak gobernaten du, manhatzen du, legiak egiten dutu.

Gaizo botz emailia! Bethi houn hiz, bena sinhet-skor! Hik duka Frantzia gobernaten? Hik duka lege-egiler, ministroer, presidentari, manhatzen erreligionari gerla egitia, hilen mezen ebatstia; Jinkoaren sinhestiaren haurren arimetarik khentzia; Aita Sain-tiaren eta Aphezkupien, beren kargiaz, beren berthutez, bere dohañez haiñ errespetagarri diren gehien sakratu hoiien laidostatzia? Hik duka egiten legia legarren emendatzeko, hainbeste kargulant soberakinen beren khorpitzeko eta mousako larrian gizen-terazteko? Hik duka ezari, Frantziako lehen ministro, Briand bezalako arnegat bat, lehenago bere tzarke-riengatik tribunalek kondenatu ziena?

Ahal hintzateke bai egiazko errege izaten nahi bahintz: baheki buria gora etchekitzen gorriek hire lephoan ezari deien estekaren etheiten, hire bizkarrian egarerazi nahi deitzen zergen ourthoukitzen.


Behar huke ezagutu, bozka egunetan, khiristi hizala eta gizon; behar huke jakin ordian hire erregegoa *hiria dela* eta *ez gobernamentiarena*, *ez eta haren adiskide edo kargulantena*.

Ordian ezkintzazkek ikhous hainbeste itchouskeria goure khiristi odola desouhouratzen eta gizontarzunahalkerazen beitiute beste populien aitzinian.

Ordian, ehintake bara, bozka egun bakhotch haren erregegoa alegiakoaren truku lau ourtheren esklabo.



BI GALTHO JAKITANTER



JINKORIK gabe eraiki jente-araldian badira errailiak baizik ere *Jakitatia*, frantzesez *La Science*, dela gaizen orenen cheheki argitan ezarlia, eta eztela batere oundatzik errelijioneko misterioetan, eztirelakoz errelijioniak erakasten dutian gaizak cheheki argitan ezarten ahal.

Haier eta haien behazaler bi istoria eta ondotik bi galtho :


Behin hiritar neskatchouna bat laborari etche batetan khausitzen beitzen, ikhousi zian arrautze bat kiskaturik eta barnetik tchitcha bat mosko khalduz arrautze kuskiari. Ilusiturik, haurrak erran zeion bere amari. « Ama eztit enthelegatzen ahal gaiza bat. » — « Eta zer, haurra? » — « Ama, noula tchitcha pipiñi horrek egin othe du arrautze hortan sartzeko? » Amak arrazoueki ihardetsi zeion : « Horrek behar din galthegin Jinko hounari. »

Eia eia, jakitant Jinko gabeko eta Aita Sintiaren kontreko hoiek zer ihardetsten dien haurrak bere amari egin galtho horri?


Beste behin, errejent mouda berriko hoietarik bat, ari zen *La Science* delakoaren gañen espantoz, *aéroplane* eta oraiko gizonen gogatu eta egin mekanika hoiez, erraiten zilarik ez zela haboro Jinkoatan sinheste beharrik. Laborari jakitate tchipiko bena gogo chucheneko zen batek erran zeion : « Ukhazu

nahi duzun bezainbeste konfidantcha jakitatan ; bena utzi gitzatzu goure sinhestiaren azkar ukheitera Jinkoatan; nik egun oroz ikhouston dit mekanika bat buru batetarik ezarten beitzaiο belhar bouchi bat eta bestetik emaiten beitu khotchu bat ezne. Eta badakizia noula deitzen den mekanika houra ? Behia »

Eia, eia, jakitant dielako hoiek eginen ahal dekienez holako mekanikarik?



LABORANTCHAZ



1° Ogi azia.

Ogi goizik ereña aisago sortzen da, ere azi gutiago behar date ; neguko hotzetako zañak azkarturik dutuke eta halaz eztuke kharrounte handien beldurrik. Goizik ereñ ogian utsu gutiago izaten da. Pe hortarik ekhar erazten dien ogietan bada mota hanitchetarik ; zounbait, bihi emaile handi dirade, beste zounbait, indartsiago ; azken horiek gutichago emanen die. Ziberoko haboroche gunetan lekhukotik ereiten da.

Houn lizate nouiztarik nouiztara ogi aziaren khanbiatzia, arballan eraikitik basa bazterrian ereitia eta hala hala basa bazterrekotik arballan. Halaz, ereiten den lurrian galthatzen dian bizigarritik nasaikiago edirenen du. Ogi muta ororen hazkurria ezta osoki berra. Ogi azia ez khanbiatzez, bortchaz ere chuhurchetan da hari emanenik den hazkurria ; beste ogi lekhu batetan haboro ediren liro ; lekhu hartan erai-

kitzen zen ogia beste gozoz, janhariz bizi zelakoz, pharteka berere.

Bihi muta batetarik beno haboroetarik ereñ behar lizate, khausita segurrago izan dadin. Ezpalitz bataren ourthe aldi, bestiaren izan ahal leite. Hazkurria ez osoki berra izatez, eztirade hala algarri ebaska biziko. Zankho bata, flakutto jeikitzen bada, khandukouan berme bat edirenen du.

Ogi bihiazi geiak ountsa zohiturik izan behar luke: bihi ountsa zohitia aisago jiten da. Ere gaizak ountsa phezatzez lur lanetan ari direnek, ogikan azi geia zankhon gainen ountsa hountzera uzten die, ebakitzzen bestiaren ondolik. Zohi gaintitzera utzi gabe bildu ogi bihia hobe baizik ezta eiheralatko, irintsiago da. Lurrilat ezari behar den ogi bihiaren barneko aziak aldiz bere estalgia gogortto galthatzen du, begirari azkar bat nahi du.

Azi geia ederrago eta hobe baizik ezte. Hori gaiza orotan khausitzen dena da. Ezaguturik da bihi larria bertanago lantharetzen dena; lantharia bera mugerkiago houna da, etsai orori aisago buhurtuko da. Errana da: hor flakia, oro kukuso; lanthare flakiri eritarzunak, azkarrari beno milatan aiherrago zaitzo. Indar behar da etsaier buhurtzeko.

Eder bezala oso, demendren haskurarik gabe, izan behar du bihi azi geiak. Eskuka eta korreez jo ogia ezta hullanik ere hala phartekatzen noula bekanikaz, berheziki suskouez, joua. Azi-geitako ezta houn ogi bihi erdiratia. Haborouetan barneko azia phorrokirik duke, bethi eskaz thapaturik; trempan ezari ondouan, bertan betriolak erreko, hil eraziko du.

Ogi azi geiak behar luke arren ountsa aizatu, zethabe larritto batetan igaran, bihi chehe eta erdiatietarik berhezi.

Erein aitzinetik betriolstatzen da ogi azia. Ezaguturik da latsunak eztila photererik aziaren eritarzunen goitzeko. Bada bakhotch zoubait sulfate de

soude delakouaz usaje egiten dinik. Droga hortarik 140 gramma hourtzen da 10 boutilla hourretan; behin hourtu ondouan, hourrez emendatzen da, zaku bat ogien trenpatzeko gisan. Bihiak ountsa nahasten dirade. Lan hori egiten ahal da egun zoubait erein aitzinetik. Ogiak eztu berotzera utzi behar.

Haborouek oraiogi azia betriolstatzen die. Benedict Prevost deitzen da lehen lehenik ogi azia betriolstatu dina. Houna noula. Kobria eta betriola berere anaie erdi dirade. Gizon jakintsiek kobria hourretara khambia erazten die. Hour hortarik inkaru bat godalet batetan ezar dadila, betriol hourraren ber uduria duke, ber koloria, ber berthutia ere. Doidoia aiphatu gizonak kobre ountzi batetan luzaz egon hour batetan ogi azigei inkaru bat trempatu ukhen zian. Azi hartarik jin ogia sortzetik eta biltzila ogiaren eritarzun bakhotch batek ere etzian hounki, bai aldiz latsunian igaran bihietarik jinak.

Egun ountsa borogaturik da betriolaren photeria; ezta demendren dudaren lekhurik. Egun batez ereiten dena betriolstatzen da aldian. Bezpera goizetik lan horrek egin behar du. Ountzi batetara, izan dadila bertz bat, edo bouja tchipi bat, husten da azigeia. Ountzitik kampo betriola hourt erazten da, boutilla hourkal 10 gramma. Hourtu bezain sarri, ogiaren gaina husten da, chehunez ogia beno gorago heltzeko gisan. Hamabi orenez trempan uzten da ogia, artetarik garrote batez edo zourezko phallot batez ountsa nahasten delarik. Bihi ahulenak hour gaina gainti barreatzen dirade; iazkei batez ideki behar die eta ezari behin, ollouek edo borthakouek hounkiko ezten lekhu batetan.

Hamabi orenen burian, ogia zare batetara idekitzen da eta, tchukatu che den bezain sarri, chahuki hedatzen ezkaratz edo khamberra ountsa ehaztatu batetara, han idorche dadin.

Ezti ezta den ogi bihia ezta ountsa barreatuko, ereindadila ahurrila edo semoir-ila. Hanitchko alhorretako ogiaren desbardin jitia houna da pharte houn bat bihiaren idor-eskaz zelarik barreatzetik.

Ezta lan gaitz bat, ez eta khostous den bat. Sei ountsa ogien aski da kilo erdi bat betriol. Ogiaren eitarzun haborouen aziak ehaiten dutu betriolak.

Gogoua houni : ogiaz betriolsta eta 24 orenetan barnen erein behar du ; bestelan ogi bihi barnen den aziari ogen egin lio betriolak. Hourrak ere aldikal arraberritu behar du. Biharamenekoua baizik eztadila trempan ezar aldikal. Bezpera goizetik egiten delarik lan hori, gaia oso osoua baduke ogi bihiak idortzeko.

2° Lur sagarra

Goure Kartielian deitzen dire zombait zaharrek *Pattakoua* eta beste bakantek *Trufa*. Gaztek, *Franchimant* jakintsunek, eskolan ebilzalek aldiz, malarouski *poumaterra*. Oh ! hitz itchousia holako gaiza hounaren ! Nourk eztu ezagutzen, nourk eztu maïte holako uzta baliousa ! Zoumbat zerbutchu houn eztu egiten jenten hazteko, kabalen bizierazteko ; eta hatik nourk ountsa ezagutzen ¿du ? Nourk daki nountik jiten zaikun, noun dian bere sor lekhaia ? Oraiko aldian horiek berrak erran nahi dutugu.

Jinkouak kreatu zian eta ezarri lehen aldikoz Ameriketako pharte batetan *Chili* deitzen dena. Han berra sortzen da noun nahi, heben assuna bezala ; erran gabe da, heben koua uduri dela. Hantik hedatu zen, emeki emeki Ameriketako beste phartetara eta gehienik *Virginie* et *Caroline* deitzen diren oraiko *Etats-Unis*-etako probintzietarat. Ameriketarik, lehen lehenik, Espanoulek ekharri zien beren erresoumala ; eta hantik laster Anglesek ere baiberen lurretarat ; Frantzesek azkenik beretu zien eta nekez-

ezi trufatzen zutien hetarik jaten zien jentiak, — eta heben berian, goure Eskual herri ederrian, ezagutu dutugu zahar elibat zouiñek, sekulan, gogo hounez ezpeite gaintitu, erraiten zielarik borthakouen baizik ezirela houn!!! Hortik du *Trufa* delako izen hori, *Gamen* lehentze entzun dudana. Oraiko jentek, trufaren lotsarik gabe, jaten die gogotik, etcheko anderiak, eijerki zarthagiñan gorriturik, ezarten tianian mahañaren gaina.

Erran dugu gorachago Frantzian lur sagara hatsarian etzela zerbutchazen kabalen hazkurritako baisik. Berantian, *Parmentier* deitzen zen gizon batek egin zian egin ahal bat jenter ere haren jan erazteko; baieta ere khausitu, *Louis XVI* gerrenaren langungouareki : Ez aisegi, ezi, ordianere, orai bezala, jentek errembes airebat bazien. Houna noula agitu zen :


Parmentier (1731-1813) delako jaoun houra, jouanzen 1772^{ian}, apotikaide bezala, Frantziako armadaren ondotik, Alemanietarat gela egitera. Han ikhousizian noula aotch herriek jaten zien gogo hounez pattakotarik, eta zombat houn egiten zeren. Ordutik, gogouan hartu zian bere nazioneko jenter ere haien maitheraztia. Bena bazakian ere zombat trufaturik ziren heietaric jaliac; kabalen pare lagunek ezarten beitzutien. Badoua errege houn haren gana; erraiten deio bere nahia, bena ere bere beldurra, Bien artian hitzartzen die erregeren alhor bat erreinen diela fruta berri hortarik, eta gero, hountzeko phuntian, lur-sagar hourak begiraziren dutiela soldadouez. Hala hala eginik izan zen. Jentek, oustez eta zerbaiz izigarriko buliotako diren, hullantzen dira gaiaz, emeki, ichilka, acheria oil altegila bezala, eta ebaska eramaiten dutie etchetarat. Han adichkideki jaten dutie, gozatzen dutie. Gerouago eta gehiago ouhouñak atrebitzen dira eta jiten noubre handiagotan, ezi soldadouek mania ukhen die begien zerratzeko eta

uzteko hartzera nahi zienaren. Horra noula *Parisienak* lehenik pattakouari abiatu ziren eia gero mouda bertan hedatu goure Uskual herriala artino. Zer zarbutchu izagarria eztu egiten! Noula bizigintake hora gabe? Zer eskerrak arren zor tugun, lehenik Jinkouari eta gero *Parmentier*-i eta *Louis XVI*^{ari}.

Fruta hori lur orotan sortzenda, gehienetan uzta eder bat emaiten du bena ezta etchit orotan bardin houn eta bardin aberats. Frantzian, hirour departamentutan du hobekienik emaiten; *Vienne*, *Haute-Vienne* et *Creuse* dira hoberenac: Bordele ardouaren tako bezala, horik pattakouaren haituzko diren lurrak dira. Badira ere lur-sagar mota hanitch, batak chouri, bestiak gorri, bestiak holli, baieta ere ourdin ulhun, uduri beitira beltz. Horietzaz orotzaz mintzatuko gira berantchag-o, eta gehienic estudiantuko tugu Uskualherrian, zibero gain hountan eginik izan diren iseiak.



ISTORIA ETA ERASI



BEHIN batez, miskandi elibat ari ziren beren buruzagien tcharkerien khountatzen. Haie-tarik batek, ardoua maitechko beitzian berak ere, erran zian: « Goure etcheko jaunak bere mañater edatera emaiten dianian, boutillak egiten du... til... til... til... til, bere godaletiala hutsten dianian aldiz: khoul — khoul — khoul — khoul. » Beste etche batetako mithilak ihardetsi zeion: « Zien etcheko-jauna, ountsa gouria uduri duk. Gouri edatera emaitiareki boutilla ari duk... liro... liro... liro... liro...

bona nausiak bere buria zerbutchatzen dianian, musika besterik duk, ordian boutillak egiten dik : illir — llir — llir — llir — llir. »

..

Martik, Ameriketarik arrajitiareki, bideko itchasportu batetan, perrocket bat erosi zian eta ahalaz eskolatu. Laster, ihizia gizonari esteki zen eta bethi Martien ondoan bazouen. Marti, eritarzun bat eginik, ari zen ardura ountziko laguner erraiten : « Erichka izan nuzu » eta perrocketak nausiaren elhiak arround arrapikatzen zutian. Martik eta haren ihiziak Maulera jinik, han algar galtzen die. Perroketa, suertez, heltzen da Altzurukura. Ihizlari handi batek ikhouston du eta oustez hour ollo berde bat dela tiro batez egochten du. Eskietaratzen du eta ikhertzen gizen denez ; borogatzen dianian pikaporta bezañ mehe dela, erraiten du esker gaisto bateki : « Debria, zounen mehe hizan? »

Perrocketak, azken hatsa emaiteko beitzian, ihardesten deio : « Erichka izan nuzu. » Altzurukutarak ordian : « Pharkatuko deitadazu jauna, ouste nizun tchori bat zinela. »

..

Errepublikako bestaren aitzineko igantian, hiri batetako *pompier* dielakoen kapitañak erran zian bere gizoner : « Uztailaren 14^{eko} erredua eginik izanen da arristiritan, euria ari balinbada goizan ; eta, aldiz, arristitan euria ari balinbada, erredua eginik dateke goizan. » Giza gaizoa ! pompierren kapitañ izateko houn bazen ere, ezzatekian houn pholboraren phentsatzeko.

..

Haur batek bere amari, amañi chaharraren aitzian : « Ama zertako bilho chouri zounbait batutzu

burian. » — « Hire gaistokeriek chourierazi beiteiztade, ene haurra. » Haurrak arround : « Ama, arren zihau hanitch gaisto izan zira, ezi, amañik bilhoak oro chouri titzu. »

..

Gogoa nounbait zian bati galthatzen deio adizkide batek : « Horra hiza, bihar, houlakoaren ehortzetala. » — « Ez, bihar eztiat aizina, bena etzi nahi balinbaduk jinen nuk. »

* *

Montories gizon bat khausitu zen, igante batez, Biarnoko herriska aphur bat arnegat den batetan, mezaren entzuten. Erretorak, pheredikian, gaizkiska erabili zutian bere parropiantak, erraitiala artino : « herri hountako khiristiak oro, hola ariz, ifernialako dira. » Goure Montoriesak erran zeion bere khantukoari : « O, jou que mem fouti ; que soui de Montory. »

..

Aitak bere alhaba gastatiari : « Ezpahintza igor nik egun oroz emaiten deitzañadan bi sosak. hilabeteren buruko bahuntuzke hirour libera saihetsian, hiriak. » — « Aita, bena ordian eniotzu ihoulaz ere jan batetan hirour liberaren hounttoak. »

..

Madalou nahi lizateke sarthu neskato Mauleko etche batetan. Madamak erraiten dero : « Zounbat ourthez sehi egonik zira ? » — « Bi ourthez. » Dio Madalouk. — « Baduzia igaran zien lekhietarik santifikat hounik ? » — Bai, Madama, baditit berrogei eta biga, zoure zerbutchuko. » Erran gabe doa, egun hartan ez zela Madalou akordatu.

..

Kadetek ostatuko neskatoari : « Ardou hounek uduri dizu gaztetto dela. » Nezkatoak : « Egia duzu; goure etheko jaunak eztizu ukhen orano horren batheiatzeko arterik. »

Pottolok hazkei bat eramaiten du saltzera Athar-ratzeko merkhatialat. Amak erran deio : « Gero eztezala sal, hogeï eta hamar libera ukhen artino. » Merkhatian, berhala jiten zaio berrogeï liberaren eskentzalia. Pottolok eztu nahi saldu eta utzultzen da amari khountu emaitera bere unguiaz, kountentik amaren errana etheki dialakoz. Eta hau da pottolokeriaren pottolokeria, ama khechatzen beitzai, Pottolok eztu orano ikhouston zer gatik ama khechu dian

Altzurukutar bat eta Barkochtar bat Mauleko feirran agitzen dira algarreki, biak chorthekari lagunak, adinian aitzina ari. Altzurukutarrak dio : « Eztiat enthelegatzen ahal noulaz nik bizarra chouriturik dudan eta bilhoa orano beltch ; hik aldiz buria chouria chouria duk eta bizarra beltch beltcha. »

Barkochtarrak abillki : « Hori egiten dik, hik akhiterazi dialakoz baralla buria beno haboro, nik aldiz buria baralla beno. »

Istoria horrek oharterazten deit Frantziako errege batena. Egun batez galthegin beitzeien zertako bizarra beltch beltcha zian eta bilhoa chouriturik, ihardetsi zian : « Zeren bilhoak hogeï ourthez zaharrago beitut bizarra beno. »

Sohutar gizon batek Ameriketarik jinik bere adiskide Bettani : « Gaizo Bettan arren alhargun behiz, eta nouizez geroz ? » — Bettanek : « Ene emaztia hilez geroz. »

Mauleko soldado bat, amaren hil berria ukhenik, badoua kapitañari ehortzetala jiteko permissioiaren galthatzera. Kapitañak : « Aldi hountan emaiten deizut, bena ezteizut usu emanen. »

« Osaba eri gaizki den batek bere barberari : « Izkiri-
riba izozu ene llobari hanitch eri nizala, bethiere
nourbait alageratuko duzu ; sendotzen baniz, ni ; espantiz
sendotzen, ene lloba. »

Madamak Maider bere neskatoari : « Sogizu zer
erhautsa den muble hoietan gañen ; badizu jokha
niozu sei hilabete hor dela. » Maiderrek : « Madama,
eztit ordian nik ogena, bena bai ene aitzineko neska-
toak ; ezi, eztizu hirour hilabete baizik Madamaren
zerbutchian nizala. »

« Noula egin duzu hola aberatsteko, dio egutseme
batek bere osabari ; nik zuk eman dothiaren arrandekin
nekez bi buriak juntatzen ditit. » — Osabak,
ehaiten dialarik illobak phiztu bi argietarik bata,
ihardesten du : « Adiskidia eztuk gaitz ; aski duk
osoki beharrak diren gaizekin berekin igaraitia eta
khandera baten baizik ez phiztia houra aski denian. »





MAIATZA edo EPHAILA
Eg luzatzen dira oren eta laordenez




- ☿ a. l., 2ⁿ, arrastiriko or eta 39^m.
- g. b., 9ⁿ, goizanko 5^{or} eta 42^m.
- ☽ l. l., 16ⁿ, goizanko 2^{or} eta 22^m.
- ☾ e. b., 24ⁿ, goizanko 5^{or} eta 48^m.
- ☿ a. l., 31ⁿ, arratseko 10^{or} eta 33^m.

ARRAMAIATZA edo BAGILA
Eg. luz. dira oren et 1/4, 22^a drano.



- g. b., 7ⁿ, arrastiriko or eta 25^m.
- ☽ l. l., 14ⁿ, arrastiriko 6^{or} eta 28^m.
- ☾ e. b., 22ⁿ, arratseko 8^{or} eta 21^m.
- ☿ a. l., 30ⁿ, arrastir. ko 4^{or} eta 48ⁿ.



- 1 **Igante.** 5. J. Filipeet Jak. Ap.
- 2 Astel. *Errogaz.* s. Atanasi.
- 3 Asteharte. Da Khurutze.
- 4 Astizken. sa Monika.
- 5 Ostegun. SALBATORE
- 6 Ostirale. J. Johane Eb. B. L.
- 7 Neskanegun. s. 4 tanizlaz.
- 8 **Igante.** J. Migel. *agert.*
- 9 Astelehen. s. Gregori Na.
- 10 Asteharte. s. Antonen.
- 11 Astizken. s. Oriens.
- 12 Ostegun. s. Nere eta Akil.
- 13 Ostirale. s. Jenio.
- 14 Neskanegun. Johane Sala, d.
- 15 **Igante.** PHENTEKOSTE.
- 16 Astelehen. s. Johane Nep.
- 17 Asteharte. s. Paskal.
- 18 Astiz. *IVTb.B.* s. Venanzio.
- 19 Ostegun. sa Pudenziana.
- 20 Ostir. *IVTb.B.* s. Bernardeñ.
- 21 Nesk. *IVTb.B.* s. Petiri Zel.
- 22 **Igante.** I. TRINITATE.
- 23 Astelehen. s. Ubalde.
- 24 Asteharte. A. B. Laguntz.
- 25 Astizken. s. Gregori VII.
- 26 Ostegun. EGUERRI.
- 27 Ostirale. sa M. Mad. P.
- 28 Neskanegun. s. Agosti.
- 29 **Igante.** 2. s. Garzia.
- 30 Astelehen. s. Felis.
- 31 Asteharte. sa Anjela.

- 1 Astizken. s. Kler.
- 2 Ostegun. s. Poteñ.
- 3 Ostirale. J. BIHOTZ SAK.
- 4 Neskanegun. s. Frantzes K.
- 5 **Igante.** 3. s. Bonifazi.
- 6 Astelehen. s. Norbert.
- 7 Asteharte. s. Majan.
- 8 Astizken. s. Medart.
- 9 Ostegun. sa Pelajia.
- 10 Ostirale. sa Margarita.
- 11 Neskanegun. J. BARNABE, *ap.*
- 12 **Igante.** 4. s. Johane F.
- 13 Astelehen. s. Antoni Pad.
- 14 Asteharte. s. Basila.
- 15 Astizken. sa Jermena.
- 16 Ostegun. s. Franzes R.
- 17 Ostirale. s. Avit.
- 18 Neskanegun. sa. Marina.
- 19 **Igante.** 5. s. Jervasi eta Prob.
- 20 Astelehen. sa Julieta Falk.
- 21 Asteharte. s. Louis Gonz.
- 22 Astizken. s. Paulen.
- 23 Ostegun. s. Eusebio.
- 24 Ostirale. J. JOHANE BA.
- 25 Neskanegun. sa Eurosia.
- 26 **Igante.** 6. s. Johane eta Paule..
- 27 Astelehen. s. Prosper.
- 28 Asteharte. s. Irene.
- 29 Astizken. J. PETIRI eta P.
- 30 Ostegun. J. Phaloren oih.



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 ez.




- ⊙ g. h., 6ⁿ, arratseko 9^{or} eta 29^m.
 ☽ l. l., 14ⁿ, goizanko 8^{or} eta 33^m.
 ☾ e. h., 22ⁿ, goizanko 8^{or} eta 45^m.
 ☿ a. l., 29ⁿ, goizanko 9^{or} eta 43^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ⊙ g. h., 5ⁿ, goizanko 6^{or} eta 46^m.
 ☽ l. l., 13ⁿ, goizanko 2^{or} eta 10^m.
 ☾ e. h., 20ⁿ, arratseko 7^{or} eta 23^m.
 ☿ a. l., 27ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 42^m.



- | | | |
|----|--------------------|----------------------------|
| 1 | Ostirale. | s. Tierri. |
| 2 | Neskanegun. | A. B. BIZITAZ. |
| 3 | Igante. 7. | J. K. Odol Prez. |
| 4 | Astelehen | s. Léon II. |
| 5 | Asteharte. | s. Zirile eta Met. |
| 6 | Astizken. | s. Frankile. |
| 7 | Ostegun. | s. Marzial. |
| 8 | Ostirale. | ^{sa} Beronika. |
| 9 | Neskanegun. | ^{sa} Elisabet, p. |
| 10 | Igante. 8. | Zaxpi anaie m. |
| 11 | Astelehen. | s. Pio. |
| 12 | Asteharte. | s. Johane G. |
| 13 | Astizken. | s. Anaklet. |
| 14 | Ostegun. | s. Bonaventura |
| 15 | Ostirale. | s. Johane Maj. |
| 16 | Neskanegun. | A. D. M KARM. |
| 17 | Igante. 9. | s. Aletsis. |
| 18 | Astelehen. | s. Kamille. |
| 19 | Asteharte. | s. Bizente Paolo. |
| 20 | Astizken. | s. Filibert. |
| 21 | Ostegun. | ^{sa} Pratseda. |
| 22 | Ostirale. | ^{sa} M. Madalena |
| 23 | Neskanegun. | s. Apolinari. |
| 24 | Igante. 10. | s. Henrik. |
| 25 | Astelehen. | J. JAKOBE, ap. |
| 26 | Asteharte. | ^{sa} Aña. |
| 27 | Astizken. | s. Galatori |
| 28 | Ostegun. | s. Nazari eta Zelze. |
| 29 | Ostirale. | ^{sa} Marta. |
| 30 | Neskanegun. | s. Abdon. |
| 31 | Igante. 11. | s. Inazio Loiola |

- | | | |
|----|--------------------|---------------------------|
| 1 | Astelehen. | J. Petiri katiel. |
| 2 | Asteharte. | s. Alfonso, Lig. |
| 3 | Astizken. | J. Ezteber. edir. |
| 4 | Ostegun | s. Dominiche. |
| 5 | Ostirale. | A. B. Elhur. |
| 6 | Neskanegun. | J. K. I ransfig. |
| 7 | Igante. 12 | s. Kajetan. |
| 8 | Astelehen. | s. Ziriako |
| 9 | Asteharte. | s. Jermeñ. |
| 10 | Astizken. | s. Laorenz, m. |
| 11 | Ostegun. | s. Tiburze. |
| 12 | Ostirale | ^{sa} Klara. |
| 13 | Neskanegun. | ^{sa} Raegonda. |
| 14 | Igante 13. | s. Iusebi. |
| 15 | Astelehen. | A. D. M. ZELIALA. |
| 16 | Asteharte. | s. Rok. |
| 17 | Astizken. | ^{sa} Emilia. |
| 18 | Ostegun. | ^{sa} Elena. |
| 19 | Ostirale. | ^{sa} Filomena. |
| 20 | Neskanegun. | s. Bernat. |
| 21 | Igante. 14. | s. Julien, Lesk. |
| 22 | Astelehen. | s. Ipolita. |
| 23 | Asteharte. | s. Filipe Ben. |
| 24 | Astizken. | J. BARTOL., ap. |
| 25 | Ostegun. | s. Louis erreg. |
| 26 | Ostirale. | s. Filibert. |
| 27 | Neskanegun. | s. Jusef. Kal. |
| 28 | Igante. 15. | A. B. Bilotz. |
| 29 | Astelehen. | J. Job. I ephom. |
| 30 | Asteharte. | ^{sa} Rosa, Lima. |
| 31 | Astizken. | s. Remoun N. |



BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ⊙ *g. h.*, 3ⁿ, arratseko 6^{or} eta 15^m.
- ⊕ *l. l.*, 11ⁿ, arratseko 8^{or} eta 20^m.
- ⊕ *e. h.*, 19ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta min. 1
- ⊕ *a. l.*, 25ⁿ, arratseko 9^{or} eta 3^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ⊙ *g. h.*, 3ⁿ, goizanko 8^{or} eta 41^m.
- ⊕ *l. l.*, 11ⁿ, arrastiriko or eta 49^m.
- ⊕ *e. h.*, 18ⁿ, arrastiriko 20^{or} eta 33^m.
- ⊕ *a. l.*, 25ⁿ, goizanko 5^{or} eta 57^m.



1 Ostegun.	s. Bizente, ap. m.	1 Neskanegun.	s. Remi.
2 Ostirale.	s. Eztebe, erreg	2 Igante. 20	ARRUSARIOA.
3 Neskanegun.	s. I zier.	3 Astelehen.	Ainguru beg.
4 Igante. 16.	<i>sa Franzeza U. h.</i>	4 Asteharte.	s. Frantzes, As.
5 Astelehen.	s. Laorenz J.	5 Astizken.	s. Venzeslaz.
6 Asteharte.	s. Onesiforo.	6 Ostegun.	s. Bruno.
7 Astizken.	s. Zebero.	7 Ostirale.	s. Fide.
8 Ostegun.	A. B. SOKTZIA.	8 Neskanegun	<i>sa</i> Birjita.
9 Ostirale.	s. Omer.	9 Igante. 21.	<i>A. B. Amalarz.</i>
10 Neskanegun.	s. Nikolas.	10 Astelehen.	s. Frantzes B.
11 Igante. 17.	<i>A. B. Izen Saint.</i>	11 Asteharte.	<i>sa</i> Sabina.
12 Astelehen.	s. Gi.	12 Astizken.	<i>sa</i> Daonina.
13 Asteharte.	<i>sa</i> Ujenia.	13 Ostegun.	s. Edouar.
14 Astizken.	<i>Dna</i> Khurutze.	14 Ostirale.	s. Kalista.
15 Ostegun.	s. Nikomede.	15 Neskanegun.	s. Teresa.
16 Ostirale.	s. Ziprien.	16 Igante. 22.	<i>A. B. Garbilarz</i>
17 Neskanegun.	s. Franz Zacr.	17 Astelehen.	<i>sa</i> Edvije.
18 Igante. 18.	<i>A. B. Dolor.</i>	18 Asteharte.	J. LUKAS, Eb.
19 Astelehen.	s. Janvier.	19 Astizken.	s. <i>Grat.</i> Olor.
20 Asteharte.	s. Estache.	20 Ostegun.	s. Johane K.
21 Astiz. <i>IVTh. B.</i>	J. MATHIU, Eb.	21 Ostirale.	<i>sa</i> Ursula.
22 Ostegun.	s. Maur.	22 Neskanegun.	s. Petiri, Alk.
23 Ostir. <i>IVTh. B.</i>	<i>sa</i> Tekla.	23 Igante. 23.	<i>A. B. Patron.</i>
24 Nesk. <i>IVTh. B.</i>	<i>A. B. Librazalia.</i>	24 Astelehen.	s. Rafael, ark.
25 Igante. 19	s. <i>Aostinde.</i>	25 Asteharte.	s. Krispi.
26 Astelehen.	s. Tomas Vil.	26 Astizken.	s. Evarista.
27 Asteharte.	s. Kosme eta Dam.	27 Ostegun.	s. Fronton.
28 Astizken.	s. Faoste.	28 Ostirale.	J. SIMOUN, ap.
29 Ostegun.	J. MIGEL, ark.	29 Neskanegun.	<i>sa</i> Eusebia.
30 Ostirale.	s. Jeronimo.	30 Igante. 24.	s. Kazien.
		31 Astelehen.	s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA
Egunak llaburtzen dira orenez.




- ⊙ *g. h.*, 2ⁿ, goizanko 2^{or} eta 5^m.
- ⊙ *l. l.*, 10ⁿ, goizanko 5^{or} eta 38^m.
- ⊙ *e. h.*, 17ⁿ, gaiherdi eta 17^m.
- ⊙ *a. l.*, 23ⁿ, arratsoko 6^{or} eta 22^m.

ABENTIA edo NEGILA
Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.



- ⊙ *g. h.*, 1ⁿ, arratsoko 9^{or} eta 20^m.
- ⊙ *l. l.*, 9ⁿ, arratsoko 7^{or} eta 14^m.
- ⊙ *e. h.*, 16ⁿ, goizanko 11^{or} eta 14^m.
- ⊙ *a. l.*, 23ⁿ, goizanko 10^{or} eta 45^m.
- ⊙ *g. h.*, 31ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 1^{an}.




- | | |
|-----------------------|---------------------------------|
| 1 Asteharte. | DONISANTORE. |
| 2 Astizken. | <i>Purg. Arimak.</i> |
| 3 Ostegun. | s. Zebero. |
| 4 Ostirale. | s. Charles Bor. |
| 5 Neskanegun. | s. Zakaria. |
| 6 Igante. 25. | <i>Errelikia s^k.</i> |
| 7 Astelehen. | s. Florent. |
| 8 Asteharte. | Lao Martirak. |
| 9 Astizken. | s. Teodoro. |
| 10 Ostegun. | s. Andreu Av. |
| 11 Ostirale. | J. MARTINE. |
| 12 Neskanegun. | s. Marti. |
| 13 Igante. 26. | ELIZEN SARR. |
| 14 Astelehen. | s. Josafat. |
| 15 Asteharte. | s ^a Jertruda. |
| 16 Astizken. | s. Edmon. |
| 17 Ostegun. | s. Gregori T. |
| 18 Ostirale. | s. Odon. |
| 19 Neskanegun. | s ^a Elisabet Ong. |
| 20 Igante. 27. | s. Felis. Valesi. |
| 21 Astelehen. | <i>A. B. Eskentzia</i> |
| 22 Asteharte. | s ^a Zezila. |
| 23 Astizken. | s. Klement. |
| 24 Ostegun. | s. Johane Kh |
| 25 Ostirale. | s ^a Katalina. |
| 26 Neskanegun. | s. Petiri, Alk. |
| 27 Igante. | ABENTUKO 1 ^a |
| 28 Astelehen. | s. Maorino. |
| 29 Asteharte. | s. Saturni. |
| 30 Astizken. | J. ANDREU, Ap. |

- | | |
|--------------------------|--------------------------------|
| 1 Ostegun. | s. Eloi. |
| 2 Ostirale. | s ^a Bibiana. |
| 3 Neskanegun. | s. Frantzes Za. |
| 4 Igante. | <i>Abentuko 2^a</i> |
| 5 Astelehen. | s. Sabas. |
| 6 Asteharte. | s. Nikolas. |
| 7 Astizken. | s. Ambrosi. |
| 8 Ostegun. | A B, KONTZEP. |
| 9 Ostirale. | s. Jeronze. |
| 10 Neskanegun. | s ^a Ulalia. |
| 11 Igante. | <i>Abentuko 3^a.</i> |
| 12 Astelehen. | s. Melkiade. |
| 13 Asteharte. | s. Valeri. |
| 14 Astiz. <i>IVTh.B.</i> | s. Arzene. |
| 15 Ostegun. | s. Mismen. |
| 16 Ostir. <i>IVTh.B.</i> | s. Euzebio. |
| 17 Nesk. <i>IVTh.B.</i> | s. Lazaro |
| 18 Igante. | <i>Abentuko 4^a</i> |
| 19 Astelehen. | s. Urben. |
| 20 Asteharte. | s. Liberat. |
| 21 Astizken. | J. TOMAS, Ap. |
| 22 Ostegun. | s. Flavien. |
| 23 Ostirale. | s. Onorat. |
| 24 Neskanegun. | s ^a Delfina. |
| 25 Igante. | EGUBERRI. |
| 26 Astelehen. | J. EZTUBE, m. |
| 27 Asteharte. | J. JOHANE, Eb. |
| 28 Astizken. | Haor Inozent. |
| 29 Ostegun. | s. Tomas Kant. |
| 30 Ostirale. | s. Manzuet. |
| 31 Neskanegun. | s. Zilbestre. |



OURTHEKO HAROAK :


BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruila 6ⁿ ; abentu 10^{ik} landanko astehartian. — ATHARRATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3ⁿ *eta* aphilil. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh., amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





Edirengia



I. Frantziako aphezakupien Guthuna ezkoletzaz aiphu.	49
II. Populia errege?	60
III. Bi galtho jakitanter.	62
IV. Laborantchaz :	
1. Ogi azia.	63
2. Lur sagarra.	66
V. Istoria eta erasi.	68

